

# ERANSKINAK

**LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2016/2017 ikasturtea**

**ALDE SOZIO-AFEKTIBOA ETA HIZKUNTZAK ESKOLAN:**

**Ikas-estrategia sozio-afektiboak lantzeko proposamena**

**Egilea: Joana Elorriaga Urazurrutia**

**Zuzendaria: Aintzane Lejarreta Etxebarria**

## E R A N S K I N A K

### I. ERANSKINA: Galdetegia

Galdetegi hau, Pulitzer-ek eta Mc Groarty-k sortu zuten 1985. urtean.

Maila:                                  Generoa: MUTILA / NESKA                                  Ama hizkuntza:

INOIZ EZ (1)                                  NOIZBEHINKA (2)                                  ASKOTAN (3)                                  BETI (4)

1. Ingeleseztatu bat irakurtzen dudanean, lehenengo oso azkar irakurtzen dut; gero, berriro hasi eta astiro irakurtzen dut.	1	2	3	4
2. Nik arreta handiz entzuten dut neure ahoskera eta zuzentzen saiatzen naiz.	1	2	3	4
3. Saiatzen naiz ingelesez aritzeko aukerak bilatzen.	1	2	3	4
4. Ingeleseztatu irakurtzeko ahalik eta aukera gehien bilatzen ditut.	1	2	3	4
5. Ingeleseztatu zerbait irakurtzen dudanean, lehenbizi ideia orokorra ulertzen saiatzen naiz ezagutzen ditudan hitzak hiztegian bilatu baino lehen.	1	2	3	4
6. Nik ulermena hobetzeko ingelesezko telebista ikusten dut.	1	2	3	4
7. Neure akatsez jabetzen naiz eta zuzentzen saiatzen naiz.	1	2	3	4
8. Arreta handiz entzuten dut norbait ingelesez ari denean.	1	2	3	4
9. Saiatzen naiz ingelesa hobeto nola ikasi aurkitzen.	1	2	3	4
10. Ingelesa ikasteari denbora jakin bat emateko moduan antolatzen ditut nire eguneroko eginkizunak.	1	2	3	4
11. Ingeleseztatu norekin aritu bila ibiltzen naiz.	1	2	3	4

12. Helburu jakin batzuk badituz neure ingelesezko gaitasunak handitzeko.	1	2	3	4
13. Egiartzatu egiten dituz ingelesa ikastea egiten dituzdan aurrerapenak.	1	2	3	4
14. Telefonoan edo denda batean ingelesez ari beharko dudala jakitean, aurrez pentsatzen dut esango dudana.	1	2	3	4
15. Nahiz eta irakasleak niri ez galdetu, gainerakoei egiten dizkieten galderak neure baitan erantzuten dituz.	1	2	3	4
16. Koaderno batean idazten dituz egunero ikasten dituzdan hitz berriak.	1	2	3	4
17. Neure buruari ingelesez egiten diot.	1	2	3	4
18. Nik lotu egiten dut lehendik dakidana eta ikasten dituzdan hitz eta esaldiak.	1	2	3	4
19. Esaldietan hitz berriak sartzen dituz gogoan hartzeko.	1	2	3	4
20. Hiztegia hitz bat bilatzen dudanean, hitz hori argitzeko dakarren azalpenari ere begiratzen diot.	1	2	3	4
21. Hitz edo esaldi zati bat ulertzen ez dudan batzuetan, esaldi zati batetik edo testu osotik asmatzen saiatzen naiz.	1	2	3	4
22. Hitz edo esaldi berriak ikasten dituzdanean, neure buruari ozenki errepikatzen dizkiot.	1	2	3	4
23. Hitz berri bat gogoratzen dut, hitz hori erabil daitekeen egoera bat bururatuz.	1	2	3	4
24. Aldizka ikusten dituz ingelesezko ikasgaiak.	1	2	3	4
25. Ingelesezko hitzen antza duten hitzak bilatzen dituz nire ama hizkuntzan.	1	2	3	4
26. Saiatzen naiz ulertzen dituzdan ingelesezko hitzen esanahia bilatzen.	1	2	3	4

27. Hitzez hitz ez itzultzen saiatzen naiz.	1	2	3	4
28. Ingelesez hitz bat ulertzen ez dudanean horren esanahiari igartzen ahalegintzen naiz.	1	2	3	4
29. Behar dudana hitza ez badut gogoratzen edo ez badakit, esanahi antzekoa duen hitza erabiltzen dut.	1	2	3	4
30. Solaskidearen keinu eta imintzioei erreparatuta igarri egiten diot esanahiari.	1	2	3	4
31. Hitz baten bila hiztegiara jotzen dudanean ozenki ahoskatzen saiatzen naiz.	1	2	3	4
32. Irakasleak esan duena ulertu ez dudanean, errepikatzeko edo azaltzeko esaten diot.	1	2	3	4
33. Ideia bat nola adierazi ez dakidanean, laguntza eskatzen diot ingelesdun edo lagun bati.	1	2	3	4
34. Esaten dudana zuzen dagoen ala ez jakiteko, neure solaskidearekin egiaztatzen dut.	1	2	3	4
35. Ingelesdunek bezala hitz egiten saiatzen naiz.	1	2	3	4
36. Ingelesez hitz egiteko beldur naizenean, lasaitzen saiatzen naiz.	1	2	3	4
37. Ingelesa ikasteari buruz ditudan sentimendu eta zailtasunez hitz egiten dut beste batzuekin.	1	2	3	4
38. Ingelesez egiten saiatzen naiz, akatsak egiten ditudala jakin arren.	1	2	3	4
39. Konturatzen naiz ingelesa ikasten edo hitz egiten dudanean urduri nagoen ala ez.	1	2	3	4
40. Ingelesdunei edo ingelesez ondo egiten dutenei eskatzen diet zuzentzeko.	1	2	3	4
41. Ingelesez hitz egiten didan bati ulertzen ez diodanean, astiroago hitz egiteko edo errepikatzeko eskatzen diot.	1	2	3	4

42. Ingelesa erabiltzen dut beste ikasle batzuekin.	1	2	3	4
43. Galderak egiten dizkiet ingelesdunei, hizketan hasten naiz eurekin ingelesa ikasteko eta hobeto ulertzeko.	1	2	3	4

II. ERANSKINA: Parte-hartzaileen datuak tauletan.

1. taula. Parte-hartzaileak sexuari dagokionez.

SEXUA	PERTSONA KOPURUA	%-tan
Neskak	32	%51
Mutilak	31	%49
Guztira	63	%100

2. taula. Parte-hartzaileak mailaren arabera.

MAILA	PERTSONA KOPURUA	%-tan
5. maila	28	%44.4
6. maila	35	%55.6
Guztira	63	%100

3. taula. Parte-hartzaileen ama hizkuntza.

AMA- HIZKUNTZA	PERTSONA KOPURUA	%-tan
Euskara	36	%57
Gaztelera	27	%43
Guztira	63	%100

III. ERANSKINA: Emaitzak item bakoitzaren arabera.

1I

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	1	6	9.5	9.5	9.5
	2	27	42.9	42.9	52.4
	3	25	39.7	39.7	92.1
	4	5	7.9	7.9	100.0
	Total	63	100.0	100.0	

2I

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	1	7	11.1	11.1	11.1
	2	24	38.1	38.1	49.2
	3	23	36.5	36.5	85.7
	4	9	14.3	14.3	100.0
	Total	63	100.0	100.0	

3I

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	1	15	23.8	23.8	23.8
	2	32	50.8	50.8	74.6
	3	11	17.5	17.5	92.1
	4	5	7.9	7.9	100.0
	Total	63	100.0	100.0	

4I

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	14	22.2	22.2	22.2
2	38	60.3	60.3	82.5
3	8	12.7	12.7	95.2
4	3	4.8	4.8	100.0
Total	63	100.0	100.0	

5I

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	2	3.2	3.2	3.2
2	19	30.2	30.2	33.3
3	37	58.7	58.7	92.1
4	5	7.9	7.9	100.0
Total	63	100.0	100.0	

6I

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	27	42.9	42.9	42.9
2	29	46.0	46.0	88.9
3	6	9.5	9.5	98.4
4	1	1.6	1.6	100.0
Total	63	100.0	100.0	

7I

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	3	4.8	4.8	4.8
2	26	41.3	41.3	46.0



3	25	39.7	39.7	85.7
4	9	14.3	14.3	100.0
Total	63	100.0	100.0	

8I

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	6	9.5	9.5	9.5
2	33	52.4	52.4	61.9
3	17	27.0	27.0	88.9
4	7	11.1	11.1	100.0
Total	63	100.0	100.0	

9I

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	6	9.5	9.5	9.5
2	36	57.1	57.1	66.7
3	19	30.2	30.2	96.8
4	2	3.2	3.2	100.0
Total	63	100.0	100.0	

10I

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	18	28.6	28.6	28.6
2	30	47.6	47.6	76.2
3	15	23.8	23.8	100.0
Total	63	100.0	100.0	

11I

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	27	42.9	42.9	42.9
2	31	49.2	49.2	92.1
3	3	4.8	4.8	96.8
4	2	3.2	3.2	100.0
Total	63	100.0	100.0	

12I

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	5	7.9	7.9	7.9
2	30	47.6	47.6	55.6
3	24	38.1	38.1	93.7
4	4	6.3	6.3	100.0
Total	63	100.0	100.0	

13I

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	11	17.5	17.5	17.5
2	26	41.3	41.3	58.7
3	23	36.5	36.5	95.2
4	3	4.8	4.8	100.0
Total	63	100.0	100.0	

14I

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	4	6.3	6.3	6.3
2	17	27.0	27.0	33.3

	3	33	52.4	52.4	85.7
	4	9	14.3	14.3	100.0
	Total	63	100.0	100.0	

**15I**

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	1	3	4.8	4.8	4.8
	2	20	31.7	31.7	36.5
	3	29	46.0	46.0	82.5
	4	11	17.5	17.5	100.0
	Total	63	100.0	100.0	

**16I**

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	1	14	22.2	22.2	22.2
	2	44	69.8	69.8	92.1
	3	5	7.9	7.9	100.0
	Total	63	100.0	100.0	

**17I**

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	1	25	39.7	39.7	39.7
	2	25	39.7	39.7	79.4
	3	10	15.9	15.9	95.2
	4	3	4.8	4.8	100.0
	Total	63	100.0	100.0	

**18I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	12	19.0	19.0	19.0
2	31	49.2	49.2	68.3
3	17	27.0	27.0	95.2
4	3	4.8	4.8	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**19I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	12	19.0	19.0	19.0
2	31	49.2	49.2	68.3
3	16	25.4	25.4	93.7
4	4	6.3	6.3	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**20I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	5	7.9	7.9	7.9
2	32	50.8	50.8	58.7
3	18	28.6	28.6	87.3
4	8	12.7	12.7	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**21I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	7	11.1	11.1	11.1
2	24	38.1	38.1	49.2

	3	28	44.4	44.4	93.7
	4	4	6.3	6.3	100.0
	Total	63	100.0	100.0	

**22I**

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	1	12	19.0	19.0	19.0
	2	32	50.8	50.8	69.8
	3	14	22.2	22.2	92.1
	4	5	7.9	7.9	100.0
	Total	63	100.0	100.0	

**23I**

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	1	10	15.9	15.9	15.9
	2	36	57.1	57.1	73.0
	3	15	23.8	23.8	96.8
	4	2	3.2	3.2	100.0
	Total	63	100.0	100.0	

**24I**

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	1	5	7.9	7.9	7.9
	2	30	47.6	47.6	55.6
	3	25	39.7	39.7	95.2
	4	3	4.8	4.8	100.0
	Total	63	100.0	100.0	

**25I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	17	27.0	27.0	27.0
2	31	49.2	49.2	76.2
3	10	15.9	15.9	92.1
4	5	7.9	7.9	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**26I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	10	15.9	15.9	15.9
2	34	54.0	54.0	69.8
3	14	22.2	22.2	92.1
4	5	7.9	7.9	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**27I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	14	22.2	22.2	22.2
2	35	55.6	55.6	77.8
3	8	12.7	12.7	90.5
4	6	9.5	9.5	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**28I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	16	25.4	25.4	25.4
2	30	47.6	47.6	73.0

3	15	23.8	23.8	96.8
4	2	3.2	3.2	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**29I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	1	1.6	1.6	1.6
2	31	49.2	49.2	50.8
3	22	34.9	34.9	85.7
4	9	14.3	14.3	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**30I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	4	6.3	6.3	6.3
2	33	52.4	52.4	58.7
3	21	33.3	33.3	92.1
4	5	7.9	7.9	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**31I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	22	34.9	34.9	34.9
2	24	38.1	38.1	73.0
3	12	19.0	19.0	92.1
4	5	7.9	7.9	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**32I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	1	1.6	1.6	1.6
2	23	36.5	36.5	38.1
3	27	42.9	42.9	81.0
4	12	19.0	19.0	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**33I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	2	3.2	3.2	3.2
2	30	47.6	47.6	50.8
3	22	34.9	34.9	85.7
4	9	14.3	14.3	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**34I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	4	6.3	6.3	6.3
2	28	44.4	44.4	50.8
3	22	34.9	34.9	85.7
4	9	14.3	14.3	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**35I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	6	9.5	9.5	9.5
2	18	28.6	28.6	38.1



3	28	44.4	44.4	82.5
4	11	17.5	17.5	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**36I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	9	14.3	14.3	14.3
2	29	46.0	46.0	60.3
3	15	23.8	23.8	84.1
4	10	15.9	15.9	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**37I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	12	19.0	19.0	19.0
2	33	52.4	52.4	71.4
3	15	23.8	23.8	95.2
4	3	4.8	4.8	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**38I**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	8	12.7	12.7	12.7
2	28	44.4	44.4	57.1
3	13	20.6	20.6	77.8
4	14	22.2	22.2	100.0
Total	63	100.0	100.0	

**39I**

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	1	12	19.0	19.0	19.0
	2	27	42.9	42.9	61.9
	3	11	17.5	17.5	79.4
	4	13	20.6	20.6	100.0
	Total	63	100.0	100.0	

**40I**

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	1	2	3.2	3.2	3.2
	2	35	55.6	55.6	58.7
	3	20	31.7	31.7	90.5
	4	6	9.5	9.5	100.0
	Total	63	100.0	100.0	

**41I**

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	1	5	7.9	7.9	7.9
	2	25	39.7	39.7	47.6
	3	28	44.4	44.4	92.1
	4	5	7.9	7.9	100.0
	Total	63	100.0	100.0	

**42I**

		Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido	1	18	28.6	28.6	28.6
	2	43	68.3	68.3	96.9

3	2	3.2	3.2	100.0
4	0	0	0	
Total	63	100.0	100.0	

**431**

	Frecuencia	Porcentaje	Porcentaje válido	Porcentaje acumulado
Válido 1	19	30.2	30.2	30.2
2	27	42.9	42.9	73.0
3	13	20.6	20.6	93.7
4	4	6.3	6.3	100.0
Total	63	100.0	100.0	

IV. ERANSKINA: O'Malley eta Chamotek proposaturiko ikas-estrategia sozio-afektiboak.

ESTRATEGIA SOZIO-AFEKTIBOAK	
Argitu eta egiaztatzeko galderak	Solaskideari errepikatzeko eskatzea, irakasleari edo berezko hiztun bati argibideak, esplikazioak edo birformulazioak eskatzea.
Lankidetzatza	Beste batekin lanean aritzea atazaren bat burutzeko edo ikaskuntzako arazoren bati irtenbidea emateko; hiztun gaitu bati iritziak eskatzea norberaren performantziari edo ikaskuntzari buruz.
Zirraren kontrola	Hizkuntza ikastearen inguruko alderdi afektiboaren jakinaren gainean egotea; bere buruarekin hitz egitea ikaskuntzako atazek edo komunikazio-ekintzek dakarten estresa gutxitzeko; motibazioa eta norbere buruarekiko konfiantza handituko duten teknikak erabiltzea.
Autoadoretzea	Norbera adoretu edo saritzea; okerrak egiteari eta arriskuan jartzeari beldurrik ez izatea.

(ITURRIA: Cyr, P. 2000, 51. or).


V. ERANSKINA: Ikas estrategia sozio-afektiboak gelan lantzeko proposamena




**E**  
**R**  
**D**  
**U**  
**!**  


**ERDU!** eta irakurri bi egoera hauetan gertatzen dena. Zein da zure ingeleseko klasearekin antzekotasun gehien duena?  
**JOLAS BAT:** Saiatu desberdintasunak topatzen eta denon artean komentatu!

## Hor konpon!

















# Mututasuna ozenduz







ZIRRAREN KONTROLA



HEEELOOOO



GAUZAK ARGITZEA ETA EGIATZATZEA



AUTOADORETZEA



AUTOADORETZEA

## ETA ZERGATIK EZ GALDETU?

### IRAKURTZEN HASI AURRETIK...

Taldeka egoera honi irtenbideak ematen saiatu.

“Etxetik herriko plazara zoaz ostiral arratsalde batean, bertan zure lagunekin elkartuko zara. Kiroldegira joateko gelditu zarete herriko futbol taldeak partidua jolasten du arratsaldeko seiretan, beraz, joan aurretik gozoki dendatik pasatuko zarete gozoki batzuk eroatera.


Gurasoek gaur ez dizute pagarik eman eta berrogeita hamar zentimo baino ez dituzu aurreko asteburuan soberan gelditu zitzaizkizunak. Pakete bat eta bi gozoki dituzu eskuan baina txikle bat ere nahi duzu. Paketearen prezioa ez da oso ondo ikusten, gozoki bakoitzak hamar zentimo balio du, txikleak bost eta ez dakizu paketeak 25 edo 30 zentimo balio dituen. Zer egingo zenuke momentu horretan?”

### ARGI IZAN BEHARREKOA...

Zerbait ziur ez dakizuenean ez zaio beldurrik izan behar galdetzeari. Gauzak argitu behar dira, egiaztatu horrek lasaitasuna emango dizu eta. Kasu honetan, duzun diruarekin heltzen zaizula jakinda, ilaran zauden bitartean lasai sentituko zara, bestela urduri eta larri egongo zara.

### IRAKURTZEKO PREST!













Erantzun hurrengo galderak talde txikian eta gero talde handian komentatu.

- Zer gertatzen zaio protagonistari?
- Nola sentitzen da hasieran?
- Zer egiten du nahi duena lortzeko?
- Hobekuntzak ikusten dituzue denborarekin?
- Nola sentitzen da bukaeran?

## PRAKTIKATZEN HASI...

### 1.Jarduera. ZUZENTZEKO ESKATU!

Hizketan ari zarenean, oso lagungarria da konfiantzazko norbaiti eskatzea zure akatsak zuzentzeko. Zuzentzailea zeuk aukeratu, baita zuzentzeko modua ere (akatsa egin orduko, hizketaldia bukatu eta gero...).

Adibideak:

- Elena lankideekin euskaraz ari denean, Ana-ri (bere bulego kideari) eskatzen dio erne egoteko ondorenean entzun dizkion akatsak esateko bere bulegoan.
- Joxe Ramonek azkar ikasi nahi du eta bere irakasleak ez dio beti zuzentzen. Eskatu dio mesedez akats guztiak zuzentzea, nahiz eta oso nekagarria izan.

Ataza:

Bakoitzak bere izena paper batean jarri eta banatu ikaskideen artean. Tokatu zaigun pertsona gure zuzentzailea izango da. Berari kontatuko diogu oportretan egon garen bitartean egin duguna. Baina lehenik eskatuko diogu argi eta garbi akats guztiak zuzentzeko bat-batean. Zuk, zure mintzaldian apropos 3 akats esango dituzu. Mintzaldian zuzenketak egingo ditu zuzentzaileak. Bukatutakoan, zuzentzaileari galdetuko diogu zeintzuk izan diren apropos egindako 3 akatsak, ea asmatzen dituen. Zuri, galdetuko dizugu zeintzuk izan diren nahi gabe egin dituzun akatsak (beraz, zuzentzaileari ere kasu egin behar diozu).

Iturburua:

Oxford, R.L. (1990a). *Language Learning Strategies*. Boston: Heinle & Heinle.

Pikabea, I. (2002). *Ikasle helduen ikas-estiloak eta ikas-estrategiak euskararen ikaskuntzan eta erabilera ohiturak ikasgelatik kanpo: interbentzio-programa bat* (doktorego tesia). EHU, Donostia.

Moldatzailea: Joana Elorriaga

## 2.Jarduera. LAGUNTZA ESKATU

Zerbait esan nahi duzunean eta ateratzen ez zaizunean oso lagungarria da entzuleari laguntza eskatzea esaldia osatzeko.

Adibidea:

Edurenek azaldu nahi dio Mikel-i erakusketa batean egon dela eta esaldi hau esaten dio:

- Edurne: “Ikusi ditut ontzi batzuk, eee.... Nola esaten da de arcilla euskaraz?”
- Mikel: “Buztinezkoak”
- Edurne: “Ikusi ditut ontzi batzuk buztinezkoak”

Ataza:

Konta ikaskideei zure ikastetxean izan duzun iskanbilarik handiena (hitzen bat ez dakizunean, irakasleari edo kideari galdetu lotsarik gabe).

Iturburua:

Oxford, R. L. (1990a). *Language Learning Strategies*. Boston: Heinle & Heinle. Moldatzailea: Pikabea, I. (2002). *Ikasle helduen ikas-estiloak eta ikas-estrategiak euskararen ikaskuntzan eta erabilera ohiturak ikasgelatik kanpo: interbentzio-programa bat* (doktorego tesia). EHU, Donostia.

## AUTOEBALUAZIOA

Baloratu hurrengo jarrerak 1etik 5era

1. Hobeto sentitu naiz nire dudak galdetu eta gero.
2. Jarduerak hobeto burutu ditut.
3. Nire lagunak eginiko zuzenketak laguntza gisa hartu ditut.
4. Egindako zuzenketek hizkuntza honetan ditudan zailtasunak gainditzen lagundu didate.
5. Hemendik aurrera ez diot galdetzeari beldurrik izango.
6. Nire dudak beste batekin egiaztatzeak lasaitasuna eman dit.

Erantzun hurrengo galderak:

Zein zailtasun izan duzue?

Nola sentitu zarete zuzenketak egitean? Eta jasotzean?

# TANTAZ TANTA ITSASOA GARA

## IRAKURTZEN HASI AURRETIK...

Ikus ezazue hurrengo bideo hau:


<https://www.youtube.com/watch?v=YGxr38aTM2c>

Hiruko taldeetan galdera hauek erantzun:

- Zer gertatzen da bideoan?
- Zein da haien helburua?
- Nola lortu dute?
- Garrantzitsua izan da horrela aritzea kasu horretan?

## IRAKURTZEKO PREST!













## PRAKTIKATZEN HASI...

### 1. jarduera. ELKARREKIN IRAKURTZEN

Ariketak edota etxerako lanak taldean eginez, hizkuntza asko lantzen da, baita elkar animatu ere.

Ataza:

Lauko taldetan jarriko zarete bakoitza bere testuarekin. Taldekide batek lehendabiziko paragrafoa irakurriko du. Gainerakoek oso adi egon beharko dute, izan ere, hurrengoak (erloju orratzaren noranzkoari jarraituta) aurreko kideak irakurritakoa azaldu edo horren laburpena egin beharko du eta beste biek zuzena den ala ez edo ados dauden ala ez esan beharko dute.

Hurrengo ikasleak (bigarrenak; alegia, lehendabiziko paragrafoaren laburpena egin duenak) bigarren paragrafoa irakurriko du, eta hurrengo ikasleak (hirugarrenak) horren laburpena egingo du. Ondoren beste bi ikasleak (laugarrenak eta lehenengoak) esan duenarekin ados dauden esango dute eta behar izanez gero, zehaztapenak edo zuzenketak egingo dizkiote. Hala, bata bestearen segidan testu osoa irakurri arte.

Hitzen bat ulertzen ez baduzue taldeko bozeramaileak irakasleari jakinaraziko dio. Irakasleak gainerako taldeei galdetuko die ea hitza ezagutzen duten eta ea lagun dezaketen, gainerakoak ere estu bera irakurtzen arituko baitira. Hala bada, ozen azalduko du.

Aldaera:

Idatzizko testuaren ordeztu, bideo, diapositiba, argazki edo marrazki batzuen iruzkina egin dezakete zatika. Orden jakin bati jarraituta, parte hartzaile bakoitzak zer ikusi duen azalduko du. Gainerakoek galderak egingo dituzte, esandakoa zehaztu edo, iritzia eman.

Iturburua:

Pujolás, P., Lago, J. R., Naranjo, M., Pedragosa, O., Riera, O., Soldevilla, J., Olmos, G., Torner, A. eta Rodrigo, C. (d.g.). *IK/KI Programa. aldean ikasten irakasteko. Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan*. Barcelona: Vic-eko Unibertsitatea. 2017-04-16an hartuta, hemendik: <http://ikastola.info/wp->

content/uploads/2013/03/IKASKUNTZA\_KOOPERATIBOPrograma\_oso\_a\_euskaraz.pdf

Moldatzailea: J. Elorriaga

### 1. jarduera: ISTORIOA ASMATZEN

Norberak dituen ideiak eta burutazioak gainerakoekin partekatzeak ideia horiek hobetzea ekar dezake. Izan ere, kideen ikuspuntuek edo iritziek aberastasuna eskaini diezaioke te guk produzitutakoari.

Adibidea:

Markel lanean dabil Bilboko lantegi batean. Paperak ordenatuago izateko asmoz armairu baten balda gehiago jarri nahi ditu eta lankidearekin komentatu du. Lankideak baldak jartzeaz gain, balda bakoitzean etiketa bat jartzeko esan dio eta Markeli ideia paregabea iruditu zaio.

Ataza:

Biribilean eseriko zarete eta pertsona batek istorio baten hasiera adieraziko du. Gero, bigarren ikasleak zuk esandakoari jarraipena eman behar dio eta horrela guztiak esaldiren bat esan arte. Istorioak kohesioa izan behar du eta biribileko kide guztiak parte hartu arte ezin da istorioa amaitutzat eman.

Gogoratu istorioek hasiera, amaiera eta korapiloa dutela.

Iturburua:

J. Elorriaga

### 3. Jarduera: ESKUTITZA IDAZTEN!

Taldeka aritzeak ideia gehiago azaleratzen laguntzen du eta gainera ziurtasuna ematen du. Izan ere, gainerakoekin zure burutazioak konpartitzeko aukera izateak okerrak zuzentzeko eta dudak argitzeko aukera eskaintzen dizu.

Ataza:

Jarduera hau egiteko orri birakaria deritzon teknika erabiliko duzue. Lauko taldeetan jarriko zarete eta eskaera gutuna idatziko duzue.

Taldeko kide bat gutuna idazten hasiko da. Bakoitzak esaldi bat edo gehienez jota bi idatziko ditu. Lehenengo taldekide horrek bere esaldia idatzi bezain pronto, ondokoari pasatuko dio orria. Hurrengo kideak gutunari jarraipena emanaz, beste esaldi bat idatziko du. Horrela, orria biraka ibiliko da guztiek idatzi arte eta gutuna amaitu arte.

Behin gutuna amaituta, zuzenketa bira egingo da. Hau da, orriak biratzen jarraituko du bakoitzak nahi dituen zuzenketak egiteko. Komenigarria da beste batek egin duenaren zuzenketa egitea, ez norberarena.

Jarraian agertzen diren gaietari bat aukeratu eta ekin!

A AUKERA: Ikastetxeko zuzendariari idatzi nahi diezue goizeko jolasordua ordubeteko izateko.

B AUKERA: Herriko alkateari idatzi nahi diezue jaietan barraka gehiago ekartzeko.

C AUKERA: Lehendakariari asteburuak hiru egun izan ditzan eskatuz.

Iturburua:

J. Elorriaga

## AUTOEBALUAZIOA

Erantzun hurrengo galderak:

- Beste pertsona batekin lan egiteak lasaiago sentitzea eragin dizu?
- Errazago egin duzu lan?
- Nola sentitu zara eginiko talde lanean?
- Zerk eragin du taldearen dinamika ona izateko?
- Zein ekintzek sortu dute arazoren bat taldean?
- Hobeto ulertu duzu testua?

## EZINA EKINEZ EGINA

### IRAKURTZEN HASI AURRETIK...

Hurrengo egoera irakurri eta galderak erantzun.

“Gaur larunbata da eta amarekin gosaltzen zauden bitartean zure lagun minaren urtebetetzera ezin zarela joan esan dizu. Iruñara joan behar zarete aitaren lana dela eta kontu batzuk argitu behar dituelako. Eta hori gutxi balitz bezala ere, amak ez duela kexarik entzun nahi dio. Oso haserre zaude, negar batean, ezin duzu sinestu. Beraz, haserre, urduritasun eta amorru sentimendu horiek kontrolatu behar dituzu”.

Zer sentitzen duzu egoera honetan? Zer egin behar duzu haserretu ez dadin? Emozioak kontrolatzen badakizkizue? Zeintzuk dira sortzen zaizkizuen emozioak publikoan hitz egitean?

### ARGI IZAN BEHARREKOA...

Emozioak etengabe sentitzen ditugu batzuetan positiboak, poztasuna, barrea, lasaitasuna eta beste batzuetan negatiboak, haserrea, amorrua, urduritasuna.


Gai izan behar gara emozio horiek guztiak kudeatzeko, eta guregan ahalik eta eragin negatibo gutxien izateko.

### IRAKURTZEKO PREST!









## PRAKTIKATZEN HASI...

### 1. jarduera. ENTZUN ETA LASAITU

Erne zeure gorputzarekin! Sarritan gorputzak ez digu gezurrik esaten.

Seinale txarrak: dardarak, kezka, gosea, egonezina, nekea, hazkura, tripako mina, buruko mina...

Seinale onak: lasaitasuna, poza, interesa, irribarrea, indarra...

Adibidea:

· Imanolek buruko mina izaten du publikoan hitz egin aurretik. Bere lanaren parte da publikoan hitz egitea. Horregatik, pixkanaka entrenatzen joateko, etxean ahoz gora hitz egiten ibiltzen da. Gainera, esan beharrekoa aurrez prestatzeak lagundu egiten dio, lasaiago joaten delako.

Ataza:

Pentsatu urduri jartzen zaren egoera bat. Egoera horretan jartzen saiatu eta erlaxazio teknikaren bat erabiliz emozio negatibo horiek kontrolatzen saiatu. Ondoren, bikoteka sentitu duzuna zure kideari kontatu eta berak kontatzen duena arretaz entzun. Zuk egoera horretan zirrarak nola kontrolatzen dituzun kontatu, aholkuak eskainiz.

Iturburua:

Oxford, R. L. (1990a). *Language Learning Strategies*. Boston: Heinle & Heinle.

Pikabea, I. (2002). *Ikasle helduen ikas-estiloak eta ikas-estrategiak euskararen ikaskuntzan eta erabilera ohiturak ikasgelatik kanpo: interbentzio-programa bat* (doktorego tesia). EHU, Donostia.

Moldatzailea: J. Elorriaga

## 2.jarduera. EMOZIOAK ELKARBANATUZ

Norbaitekin hitz egitea komeni zaizu (lagun, senide, irakasle, ikaskide) zure hizkuntza-ikaskuntza prozesuaz. Hizkuntza bat ikastea zaila eta gogorra da. Entzuten dakien norbaitekin horretaz hitz egiten baduzu, zure antsietatea, kezka, beldurra eta lotsak murriztu litezke.

Adibidea:

Peioren lagun batek lehen ez zekien euskararik baina orain ondo baino hobeto hitz egiten du. Peio noizbehinka berarekin gelditzen da nahigabeak kontatzeko. Bere lagunak entzun egiten dio eta animatu. Horrek asko lasaitzen du, lagunak ere antzeko egoerak bizi baitzituen, eta orain hizkuntza ondo daki.

Ataza:

Bikoteka batak besteari kontatu behar dio hizkuntzetan zertan doan ondo, zertan gaizki, zer gustatzen zaion, zer ez, zer egiten zaion zail, erraz, ze zailtasun dituen...

Iturburua:

Oxford, R. L. (1990a). *Language Learning Strategies*. Boston: Heinle & Heinle.

Pikabea, I. (2002). *Ikasle helduen ikas-estiloak eta ikas-estrategiak euskararen ikaskuntzan eta erabilera ohiturak ikasgelatik kanpo: interbentzio-programa bat* (doktorego tesia). EHU, Donostia.

Moldatzailea: J. Elorriaga

## 3.Jarduera. AUTOTXEKEOA

Egin ezazu zeure buruaren azterketa, zure sentimenduaz, jarreraz eta motibazioaz ohartzeko hizkuntzak ikastea (euskara, gaztelera zein ingelesa) eta ariketa bakoitza egitea. Autotxekeo hau astean behin edo egunero egin dezakezu, 10 minutu eskainiz eta ondorio batzuk ateraz.

Ataza:

Aztertu aste honetako zure gertaerak eta galdera hauei erantzun bikoteka zein banaka egin daiteke:

- Zer da gehien gustatu zaidana aste honetako klaseetatik?
- Noiz jarri naiz urduri?
- Zer sentitu dut irakasleak zuzenketak egin dizkidanean?
- Zerk haserretu nau aste honetan?
- Zein etxeko lan ez dut egin eta zergatik?
- Idazlanean akatsak errepikatu egin al ditut?

Iturburua:

Oxford, R. L. (1990a). *Language Learning Strategies*. Boston: Heinle & Heinle.

Pikabea, I. (2002). *Ikasle helduen ikas-estiloak eta ikas-estrategiak euskararen ikaskuntzan eta erabilera ohiturak ikasgelatik kanpo: interbentzio-programa bat* (doktorego tesia). EHU, Donostia.

Moldatzailea: J. Elorriaga

## AUTOEBALUAZIOA

Pentsatu eguneroko lanean sortzen ari den arazo batean:

- a. Egin gogoeta aldatu nahi duzunari buruz. Aukeratu eta erabaki zer aldatuko duzun eta nola egingo duzun. Apuntatu zer gertatzen den.
- b. Emozionalki: nola sentitzen zara? zerk sorrarazten dizu emozio hori? Zer egin dezakezu emozio negatibo hori aldatzeko?

# NORBERE BURUAREN JABE, NORBERE BIZITZAREN JABE

## IRAKURTZEN HASI AURRETIK...

Talde txikietan hurrengo galderak erantzun:


- Nola sentitzen gara beste herrialde batera bidaiatzen dugunean eta hango hizkuntza ulertzeko gai izango ez garela pentsatzen dugunean?
- Inoiz ez bagara egon zergatik uste dugu ez garela gai izango?
- Zer egin dezakegu pentsamendu negatibo hori ekiditeko?


## ARGI IZAN BEHARREKOA...

Konfiantza da arrakastaren giltza. Zuk zeure buruan sinesten baduzu edozer lortzeko gai izango zara, gainerakoek esaten dutenak ez dizulako axola izango. Saiatu zeure buruari egunero hau esaten: “Nik nigan sinisten dut”.


Ez da erraza izango baina guk ez badugu gugan eta gure gaitasunetan sinesten, nork sinestuko du?

## IRAKURTZEKO PREST!













## PRAKTIKATZEN HASI...

### 1. jarduera. BAIKORTASUNA

Zailtasunen aurrean, lagungarria da gure buruari hainbat esaldi baikor esatea.

Ataza:

Esaiozu zeure buruari honelako esaldiren bat:

- Errazago irakurtzen dut duela 4 hilabete baino.
- Jendeak ulertzen nau gutxi gorabehera.
- Gero eta gutxiago nekatzen naiz hizketan.
- Entzundakoa erreparatu eta gero hobeto ulertzen dut.
- Orain dela hilabete bat baino hobeto ulertzen dut.
- Gaur elkarrizketa polit bat izan dut.
- Akatsak egiten baditut, gehiago ikasten dut.
- Denek egiten dituzte akatsak.

Zuk zeure burua inork baino hobeto ezagutzen duzu. Asmatu 5 esaldi zeure burua animatzeko balio dutenak. Gero, trukatu papera eta tokatu zaizun papereko akatsak zuzendu. Trukatu berriz eta tokatu zaizun papereko esaldiak ozenki irakurri.

Entzundako guztien artean hautatu gustatu zaizkizun 3 esaldi eta buruz ikasi. Erabil itzazu desanimatuta zaudenean.

Bozketa egin eta hautatu denen artean esaldi baikorrena.

Iturburua:

Oxford, R. L. (1990a). *Language Learning Strategies*. Boston: Heinle & Heinle.

Pikabea, I. (2002). *Ikasle helduen ikas-estiloak eta ikas-estrategiak euskararen ikaskuntzan eta erabilera ohiturak ikasgelatik kanpo: interbentzio-programa bat* (doktorego tesia). EHU, Donostia.

Moldatzailea: J. Elorriaga.

## 2.Jarduera. BETAURREKO POSITIBOAK

Alegiazko betaurreko bereziak jarriz munduko gauza positiboak baino ez dira ikusten. Horiek jarri zeure burua eta gainerako kideena baloratzeko. Norberaren zein edonoren aldetik datozen mezu positiboak jasoz hobeto sentituko gara.

Ataza:

Bakoitzak folio batean publikoan hitz egitean nola sentitzen den azalduko du. Folio hauek mahai batetik bestera pasatzen joango dira eta gainerako ikaskideek folio horretan lagun horrek publikoan hitz egitean dituen bertuteak edo alde positiboak idatzi beharko dituzte. Mezu hauen bitartez, ikaslearen konfiantza handituko da.

Aldaera:

Ikasle bakoitzak lepoan post it bat jarriko du eta gainerakoek ezaugarri positiboak idatzizko dizkiote.

Iturburua:

Rocío López (2016). Juegos para potenciar la autoestima de nuestros alumnos de Primaria. *Educación 3.0 la revista para el aula 3.0*. 2017-04-09an hartuta, hemendik: <http://www.educaciontrespuntocero.com/recursos/educacion-emocional/ideas-y-juegos-para-potenciar-la-autoestima-de-nuestros-alumnos-de-primaria/32014.html>

Moldatzailea: J. Elorriaga

## AUTOEBALUAZIOA

Egin ezazue asanblea bat eta norberak aurreko jarduerak burutzean izandako sentimenduak eta zirrarak elkarbanatu. Hona hemen hasteko erabil ditzakezuen galdera batzuk:

1. Nola sentitzen naiz momentu honetan? Identifikatu eta onartu emozioa.
2. Nola askatu ahalko nuke sentituriko emozio negatiboa?  
(Negar egiten, oihukatzen, irudikatzen, idazten...)
3. Zerk sentiarazten nau gaizki?  
Identifikatu txarto sentiarazten dizuna eta eman arrazoiak frustrazio momentu hori deskribatzeko.
4. Egoera hori konpontzeko zerbait egin genezake?
5. Zer egin genezake eragin ahalik eta txikiena izan dezan gudan?  
Saiatu egoera txar horiei alde positiboa bilatzen.

# TXAPELA BURUAN ETA IBILI MUNDUAN!

Orain ez daukazu aitzakiarik estrategia sozio-afektiboak ezagutzen dituzu, beraz, ERDU ETA ERABILI!!

Talde txikietan estrategia hauek erabil daitezkeen beste egoera batzuetan pentsatu. Ondoren, talde handian komentatu.

Hona hemen egoera batzuk. Zer estrategia erabiliko zenukete?

- Imajina ezazu etorkizunean lan elkarrizketa batera zoazela. Lehenengoa da, inoiz ez zara horrelako batean egon. Oso urduri zaude baina ez duzu nahi elkarrizketatzaileak urduritasun hori nabaritzea. Zer egingo zenuke?
- Etxean zaudela zure gurasoek gaur gauean bisita oso garrantzitsua izango duzuela diote: etxea salmentan dago eta erosle posible batzuk datoz. Etxea hankaz gora dago, sukaldean harrikoa egin gabe, komunak lohi, egongela hankaz gora, sarrera trastez beteta. Ordu gutxi batzuk baino ez dituzue etxekoen artean dena batzeko. Bakarrik egingo zenuke edo etxekoen artean zereginak banatuko zenituzke?
- Zure lehengusu-lehengusinekin saskibaloian jolasten zabilta parkean, zu ez zara oso jaioa kirol horretan eta hori da denok uste dutena. Bat-batean baloia pasatzen dizute eta zuk tripletik jaurti egiten duzu saskiratzea lortuz. Gainerakoek zugana jotzen dute karraderan zoriontzeko asmoz eta zu ezin sinestu zabilta inoiz ez duzulako saskiratzea lortu. Hurrengo partidara konfiantza gehiagoz joango zara? Zergatik?
- Gaur goizean amonak mesede bat egiteko eskatu dizu: joan beheko dendara eta ogi integrala erosi. Zu beheko dendara zoaz eta ez dakizu ogi integrala zein den, zuk beti jaten baituzu integrala ez dena. Dendan zaude bakarrik eta inoren laguntzarik gabe. Galdetzera ausartzen zara baina ez zaude ziur lortu duzun ogia integrala den ala ez eta ez duzu etxera bueltatu nahi erosketa ondo egin gabe.

- Julen oso pertsona ezkorra da, futbola oso gustuko du baina ez da batere ona bere aburuz. Sei urte daramatza eskolako taldean futbolera jolasten baina bi gol baino ez ditu sartu bizitza osoan. Triste sentitzen da. Taldekideek jokalaria ontzat dute Julen, izan ere, defentsa izanda hainbat gol jasotzetik libratu du ekipoa. Baina Julenek hori ez du ikusten, berak ikusten duen bakarra golik sartzen ez duela da. Zer egin behar du Julenek? Zertan lagun diezaguke geure buruan sinesteak eta geure burua animatzeak?



VI. ERANSKINA: Irakasleentzako gida

# IRAKASLEENTZAKO GIDA



## Nola erabili "Erdur!" komiki liburuxka

### AURKEZPENA

Gida didaktiko honetan hizkuntza ikas-estrategia sozio-afektiboak ikasleekin lantzeko ibilbidea proposatzen da.

"Erdur!" komiki liburuxka hezkuntza baliabide bat da, ikasleen Hizkuntza eta Literatura Komunikaziorako kompetentzia hobetzen lagundu nahi duena. Horretarako, ikasleek hizkuntzak ikasteen erabiltzen dituzten ikas-estrategia sozio-afektiboetan zentratzen da.



## 1 JUSTIFIKAZIOA

Hirugarren ziklokoen artean ikas-estrategia sozio-afektiboak bultzatzeko beharra dago. Izan ere, noizean behin erabiltzen dituzte eta hauek erabiltzeak hizkuntza baten helburu nagusia den gaitasun komunikatiboa garatzen laguntzen du.

Horretarako, hirugarren ziklokoen adina eta zaletasuna kontuan izanik, istorio eta jarduera desberdinez osaturiko "Erdu!" komiki liburu xehea proposatzen da.



## 2 HARTZAILEAK

Erdu! komiki liburuxka 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduta dago.

Prestakuntza gida hau, irakasleek eginkizun dinamizatzailea eta sortzailea izateko diseinatu da. Beraz, irakaslea guztiz ezinbestekoa da proposatutako jarduerak egiteko. Hura gabe, "Erdu!" ezin da aurrera eramán.

Edukiak bereziki diseinatu dira Hizkuntza eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntza arloak lantzeko. Aldi berean, Hizkuntza eta Literatura Komunikaziorako kompetentzia eta oinarrizko zehar kompetentziak garatzen dira.



**Denontzako tresna bat izan nahi du, edozeinen esku dago.**

### 3 HELBURUAK

"Erdu!"-k bi helburu nagusi ditu eta horiek komiki liburuxkaren irakurketaren eta proposaturiko jardueren bitartez lortu nahi ditu.

- Ikas-estrategia sozio-afektiboak aurkeztea eta azaltzea, hau da, ikaskuntza errazten dituzten estrategiak ezagutzera ematea.
- Ikasleek estrategia horiek praktikatzea, ohitura hartzea eta egoera desberdinetara transferitzea.



### 4 MATERIALAREN EZAUGARRIAK

"Erdu!" liburuxkak ulerterrazak diren sei istorio biltzen ditu.

Ikasleek egoera desberdinetan izan ditzaketen hizkuntza arazoak islatzen dituzte istorioek.

Istorio bakoitza, O`Malley-k eta Chamot-ek (2000) bereizi zituzten estrategia sozio-afektibo batean oinarriturik dago:

- ⊗Gauzak argitzea/egiaztatzea (questioning for clarification)
- ⊗Lankidetza (cooperation)
- ⊗Zirraren kontrola (self talk)
- ⊗Auto adorazioa (self reinforcement)

Beste bi istorio gehitu dira, konparaketa gisa, baten lau estrategia sozio-afektiboak bultzatzen dira eskolan; bestean, ordea, ez.

Irakurketa desberdinak eskaintzeaz gain, estrategia bakoitza bultzatzeko asmoz, jarduera sorta bat proposatzen da.



# 5

## METODOLOGIA



Ikas-estrategien instrukzioak fase batzuk bete behar ditu Nogueroles-ek (2011) dioenez:

### 1. FORMAIZIOA

Irakaslearen aldetik ikas-estrategiak zer diren, zertarako balio duten, nola sailkatzen diren eta batez ere, gelara nola eraman daitezkeen jakitea.

### 2. AURKIKUNTZA

Gure ikasleek erabiltzen dituzten ikas-estrategiak behatzea eta arakatzea, eta horien inguruan zenbat dakiten aztertzea.

### 3. KONTZIENTZIAZIOA

Ikas-estrategien erabilera ikasleek ikaskuntza prozesurako baliagarria izatearen zergatien eta xedeen kontzientzia hartzea.

### 4. MODELAKETA

Ikas-estrategia bakoitza nola erabiltzen den ulertzea.

### 5. PRAKTIKA HARTZEA

Ikas-estrategia bakoitza nola erabiltzen den jakinda, estrategia hori praktikan jartzea.

### 6. AUTOEBALUAZIOA

Ikasleak estrategia horrek eskaini dionaren inguruan gogoeta egitea. (Zer izan den zaila, zer erraza, eraginkorra izan den).

### 7. HEDAPENA

Fase honetan, ikasleek ikas-estrategiak beste egoera batzuetara transferitzeko aukera ematea..

### 8. EBALUAZIOA

Prozesu osoa baloratzea.

"Erdul"-k aintzat hartzen du irakasleak lehenengo bi faseak aurretik burutu dituela. Material honek, kontzientziazioa, modelaketa, praktika hartzea, autoebaluazioa eta hedatzea deritzen faseak lantzen ditu.

# 6

## JAKIN BEHARREKOAK

### IRAKASLEAREN ALDETIK...



- ⇒ Gogoeta eragiten duten atazak planteatu behar dira.
- ⇒ Erabilera ulertu dezaten, azalpenak eta adibideak eskaini behar dira.
- ⇒ Estrategiak erabiltzeko aukerak eskaini eta erabilitako estrategien autoebaluazioa sustatu behar da.
- ⇒ Ikasleek jardunari feedback egokia eskaini behar zaio praktika onak bermatzeko.
- ⇒ Estrategien erabileraren transferentzia ahalbidetzen duten atazak eta egoerak sortu behar dira.

## IKASLEAREN ALDETIK...



- Bakoitzak erabiltzen dituen estrategien inguruan gogoeta egin.
- Estrategien erabileraren eraginkortasunaz eta maiztasunaz ohartu.
- Irakasleak eskainitako azalpenak eta adibideak adi entzun.
- Atazak burutu, aurkezturiko strategiak erabiliz eta prozesuan izandako zailtasunak eta estrategien eraginkortasuna ebaluatu.
- Ikas-estrategiak beste egoera batzuetan erabili eta ebaluatu.

## 7 "Erdu!"-ren FUNTZIONAMENDU ZUZENAREN DEKALOGOA

Irakaslea zaren aldetik, "Erdu!"-k eskaintzen dituen hezkuntza aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzeko, beharrezkoa da printzipio hauek argi izatea:

1. Irakasleen eginkizuna funtzeskoa da ikasleentzat.
2. Ikasleentzako giro eroso sortu, iritzirik gabekoa.
3. Tentsio handiko egoerak ekidin, jarrera positibo eta irekia erakutsi.
4. Gelaren antolamendua ikasleen arteko lankidetzara sustatzera bideratu.
5. Ikasle-ikasle eta ikasle-irakasle bitarteko harremana erraztu, dudak argitzeko aukera eman, erantzunak egiaztatu, informazioa elkarbanatu edota okerrak era egokian zuzendu.



6. Ikasleen jarrera positiboa bultzatu jarduerak era motibagarrian burütuz.
7. Ikasleei denbora eta aukerak eskaini estrategia desberdinak bereganatzeko eta norberaren zehaztapenak egiteko.
8. Hasieratik espero dena zehaztu eta prozesu osoan zehar xedeak gogoan izan. (Zergatiak eta helburuak argi utzi).
9. Ikasleekin estrategien errentagarritasuna neurtu feedback egokia emanez.
10. Egitekoen eta estrategien arteko loturak argi utzi, noiz erabil daitekeen bakoitza. Beste egoera batzuetara hedatu.



## 8 BIBLIOGRAFIA

Erreferentziako bibliografia hau lagungarri izan dakizuke "Erdu!" materialen gaineko ezagutza teoriko eta praktikoa gehiago lortzeko:

García, J. eta Ferreira, A. (2010). Entrenamiento en estrategias de aprendizaje de inglés como lengua extranjera en un contexto de aprendizaje combinado. *Revista Nebrija de Lingüística Aplicada*, 8(4), 17-40. 2017-2-1ean hartuta, hemendik: <http://www.nebrija.com/revista-linguistica/entrenamiento-en-estrategias-de-aprendizaje-de-ingles-como-lengua-extranjera-en-un-contexto-de-aprendizaje-combinado>

Gil Molina, P. (2013). Hezkuntzaren psikologia: teoria eta praktika. Leioa: UPV/EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetzaren Sare Argitalpena. 2017-04-15ean hartuta, hemendik: <https://ikasmaterialak.ehu.eus/psikologia/hezkuntzaren-psikologia/hezkuntzaren-psikologia.pdf>

Nogueroles, M. F. (2011). Ideas para integrar las estrategias de aprendizaje en el aula de E/LE. IV Jornadas de Formación de Profesores de E/LE en China. Suplementos SinoELE, 5. 2017-01-09an hartuta, hemendik: [http://www.sinoele.org/images/Congresos/IVJornadas/Actas/nogueroles\\_135-154.pdf](http://www.sinoele.org/images/Congresos/IVJornadas/Actas/nogueroles_135-154.pdf)

O'Malley, M. eta Chamot, A. (1990). *Learning Strategies in Second Language Acquisition*. EEUU: Cambridge University Press.

Oxford, R. L. (1990). *Language Learning Strategies: What every teacher should know*. Boston: Heinle & Heinle.